


DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko UZTAILA · 324 zenbakia



**Guztiok
Santixauen
zain!**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Koplak.

Pagorik pago

(Entzuteko: www.alboka.es)

Pagorik pago usua
pagorik pago usua,
mendirik mendi lainua,
ez dala erreza harrapatzen
maiorazguen pausua.
Maiorazguen pausua
maiorazguen pausua,
pagorik pago usua
mendirik mendi lainua.

Begira nago begira
begira nago begira,
beheko kamiñu barrira,
noz etorriko ete dan
nere maitia herrira.
Nere maitia herrira
nere maitia herrira
begira nago begira
beheko kamiñu barrira.



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González, Nahia Ruiz
Albizuri eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Emilio Carral.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco', Patxi
López, Valentin Mugarza eta Olatz
Santos.

ARGAZKIAK:

Miguel Mari Areitioaurtena, Emilio
Carral, Dukiena Klub Hipikoa, Jon
García, Estibalitz González, Fernando
Larrea, Mallabia FT, Olaia Martinez
Agirre, Valentin Mugarza, Irune Ortu-
zar, Nahia Ruiz Albizuri, Olatz Santos,
Ignacio Urreta eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Piedi Eizagirre
eta Manex Zubia.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Fernando Larrea Arana · Tenerife

“Ez dut ulertzen zergatik jendea Karibera doan, paradisu hau hain hurbil izanda”

Duela ia 40 urte irten zen Fernando Larrea Arana Ermutik, eta Tenerifen topatu du gustuko bizilekua. Eguraldiak lagunduta, mendietan eta basoetan barrena ibilaldiak egiten ditu sarritan, hala nola kirola hango hondartza ugarietan.

Testua **DORLETA VIDAL**

Duela zenbat urte joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?

Duela 37 urte irten nintzen Ermutik, herria zeharo aldatuta zegoelako. Hirigunetik urruti zegoen San Pelaio auzoan jaio ginen, eta Ermua hura ezberdina zen. Horrez gain, herrian zegoen euskaldun giro apala dela-eta joan nintzen: gaur egun entzun daitezke gazteak euskaraz hitz egiten, baina garai hartan ez.

Non bizi zara?

Tenerifeko Los Realejos herrian bizi naiz, Puerto de la Cruz ondo-ondoan. Iparraldeko kostalde berde eta umelean bizi naiz...

Nola imajinatzen zenuen Tenerife?

Gaztetan ere Tenerifera joaten ginen oporretan, bizitza


hemen merkea eta eroso delako. Eta kultura aldetik, zeharo ezberdina da.

Zerbaitek jo dizu arreta bereziki: janaria, eguraldia, ohiturak, harremanak, lana....?

Bai noski! Irla anitza da... Kontuan izan 25 mikroklima dituela guztira eta, txikia izan arren, Kanarietako zazpi irletatik handiena da. Lurralde hau Europak Afrikan daukan kolonia bat da eta, hori dela-eta, ohiturak ere zeharo ezberdinak dira. Jendea atsegina da, eta janaria nahiko ona.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Hemen ez dago hango taberna eta pintxo girorik, ezta kuadrillan ibiltzeko ohiturarik, eta hori faltan sumatzen





dut. Hemen jendea terrazetan jartzen da, eta orduak ematen ditu bertan.

Zer egiten duzu denbora librean?

Jubilatuta nago, beraz, denbora guztia aisialdia da: Teide aldera ibilaldiak egitera joaten naiz, udazkenean basora noa perretxikotan (hemen ohiturarik ez dagoen arren) eta askotan hondartzara noa ariketa fisikoa egiteko.


Gustura zaude?

Oso gustura!! Hau paradisua da, tenperatura ederra rekin! Ez dut ulertzen zergatik hango jendea Karibe aldera joaten den hau hain hurbil edukita!!

Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Noiz bueltatu-ko zara?

Duela hilabete inguru egon nintzen bertan, Zesar

“Lurralde hau Europak Afrikan duen kolonia bat da. Hori dela-eta, ohiturak zeharo ezberdinak dira”



Fernando Kanaria Handiko Cenobio de Valerón parkean: "Guantxeek hormako zuloetan gordetzen zituzten garia eta garagarra; zuloa itxi eta urte guztirako janaria izaten zuten".

anaia eta lagunak bisitatzen. Eta Santixauetan bueltatzeko asmoa daukat, paella prestatzera eta jatera!! Kar-kar.

Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ez dut uste! Hau ezagutu eta gero zaila izango da horra bizitzera joatea. Eta bueltatu... agian errautsetan, gure ama zenaren ondoan betiko geratzeko.

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUJA

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUJA

“Zaldiek izaera propioa dute, gizakiok bezala”

JUNE ORTUZAR ETA JON GARCIA · Zaldizaleak



Ez da ohiko kirol-jarduera 17 eta 22 urteko gazte hauena: zaldi lasterketak egiten dituzte, oztopoen salto modalitatean. Ume-umetan ekin zioten biek eta egunero doaz Berrizera entrenatzera, ikastera, trebatzera, gozatzera...

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Noiz hasi zineten zaldiekin harremana izaten?

Jon: Ni 8 urterekin hasi nintzen Berrizko Dukiena Klub Hipikoan. Urte batzuetara laga egin nuen, baina orain bi urte bueltatu nintzen, eta hor ezagutu nuen Iruene. Iruene: Ni berdin. 8 urterekin hasi nintzen bertan eta gaur arte.

Kirol garestia da?

I: Nahiko garestia da alokatzen baduzu. Gu beti zaldi berdinarekin gabiltza: eme bat da nirea, Mina, eta Jonena arra, Orgaz.

J: Ordaindu behar duzu bere korta, janaria... Astean birritan joatea zaldian ibiltzera ez da garestia, baina lehiatzen hasten zarenean bere garraioa, pistarako

irteera, matrikula eta horrelakoak daude. Horrek garestitzen du.

Lehiatzen orduan. Ze modalitatetan?

J: Saltoak egiten. Gainera Iruene froga batzuk irabazitakoa da.

I: Bai Liga Trankon, bost hipika klubetan egiten dena, bakoitzean salto serie desberdinak saltatuz, serietako

"Gazteak izanda ez ditugu ohiko planak egiten, beste aisialdi mota bat dugu"





Irune Ortuzar eta Jon Garcia, beraien zaldia uhaletatik oratuta.

bat irabazi nuen eta iaz beste froga baten hirugarrena geratu nintzen. Irabazteak dakarrena da egindako esfortzu guztiak eta eskainitako denbora merezi dutela sentitzea.

Zaldia animalia ikaratia da, oztopo baten aurrean seko geratzen dena. Nola lortzen duzue salto egin eragitea?

J: Entrenamenduarekin, erakutsi egin behar zaio. Asteaz hirutan daukagu klasea, baina egunero joa-

"Ondo ezagutzen dugu gure zaldia eta berarekin bat egiten dugu"

ten gara bertara.

I: Klase egunetatik aparte ere gure kabuz joaten gara eta lana eginda azkenean gauzak atera egiten dira.

Sentitzen duzue zaldia noiz dagoen urduri, noiz go-setuta...?

J: Bai, bai. Gure zaldia da, ondo ezagutzen dugu eta bat egiten dugu berarekin. Biok batera egiten ditugu gauzak. Ondo gidatzen ez baduzu, zaldia gelditu egiten da edo ihes egiten du edo ez du saltorik egiten...

I: Beraiek badakite salto egin behar dutela, baina norberak agindu batzuk eman behar ditu, hankak edo usta erabilia (nahiz eta lehiaketetan ustarekin jotzea saihestu behar den).



Irune Ortuzar Mina zaldiarekin.

Entrenamendua zertan datza?

J: Saltoak egiteko oinarri bat izan behar da eta astean zehar lantzen dugu, asteburuetakoa lehietan praktikan ipintzeko: gorputza egoki jarri, doma, laguntzak ondo jarri...

Ze ekipamendu behar duzue?

J: Prakak, labandu ez izateko *grip* izeneko silikona modukoa dutenak, belauna arteko galtzerdiak eta botak, eta kaskoa. Saltoak egiteko airbagdun txalekoa eramaten dugu.

I: Jarlekuari lotuta doa. Jausten bazara eztanda egin eta puztu egiten da, kotxeena bezala.

"Salto egin nahi ez dutenean, seko geratzen dira eta gainekoa hegan doa, lurrera!"

Pasatu zaizue, jausi zarete inoiz?

(Barre biak eta aho betez baietz).

J: Salto egin nahi ez dutenean, seko geratzen dira eta gainekoa hegan doa, lurrera! Orgaz, salto egiteko distantzia nik ondo kalkulatu ez eta agindua gaizki ematen badiot ere, hor doa! Langatik distantzia batera egin behar dute salto eta parabola ondo egin, oztopoa ez botatzeko. Super zaila da kalkulu hori ondo egitea.

I: Zaldiak geratu egiten dira, ihes egiten dute... eta horrek lehiaketa baten eragina du puntuazioan. Ni-reak ez badu argi ikusten ez du saltoa egiten. Zalduna gaizki ailegatu ezkerera langa ondora, animaliak esfortzu handiagoa egin behar du eta zaldi batzuk erabakitzen dute ahalegin hori ez dutela egingo.

Zuen adineko norbait konbentzitzeko?

J: Ba animaliekin zaudela, zaldiarekin konektatzen ikasten duzula, kirol polita dela...

I: Hor goian zoazenean, animaliei entzuten ikasten duzula, nola jokatzen duten ikusten duzula... Bakoi-



Jon Garcia Orgaz zaldiarekin.

"Irabazteak dakar egindako esfortzu guztiak eta eskainitako denbora merezi duela sentitzea"

"Han gure kuadrilla dugu, han eta hemenkako lagunak, eta denon arteko saretxoa egin dugu"

tzak bere pertsonalitatea dauka, bere izaera propioa, gizakiok bezala. Gure inguruan ez daude zaldian dabilzan erreferentziatzeko pertsonak eta zailago da animatzea kirol honetara.

Lagunek zer esaten dizuete?

I: Etxekoak eta gertuko lagunak ohituta daude. Gertukoa ez den jendearentzat, berriz, "zaldian dabilena" naiz eta galdetzen didate hau eta bestea. Gazteak izanda ez ditugu ohiko planak egiten, beste aisialdi mota bat dugu eta batzuetan ez da ondo ulertzen.

J: Ez dute ulertzen zalditegira joatea egunero, zapatu gau batez ez ateratzea igandean zerbait dugulako, hartu dugun konpromisoa... Guk han gure kuadrilla dugu, han eta hemenkako lagunak, eta denon arteko saretxoa egin dugu. Zoriontsu gara bertan!

 **Unzaga Plaza**
Hortz Klinika - Clínica Dental

Dra. Maite Orozco Ventura

Unzaga plaza 5, 4°
Eibar

943 70 23 85
660 03 33 29

clinica@unzagadental.eus
www.unzagadental.eus



Kirurgia-inplanteak
Odontopediatria
PADI zerbitzua
Ortodontzia
Estetika
...eta batez ere prebentzioa

Zure dentista gertu



“Zaldia galopean irteten denean, bere indarra eta epeltasuna sentitzea izugarria da”

OLAIA MARTINEZ AGIRRE · Zaldizalea



Bilbotarra da Olaia Martinez Agirre, baina zazpi urte daramatza Mallabian bizitzen, Berano auzoan. Kasualitatez hasi zen zaldian ibiltzen duela hamahiru urte inguru, eta ordutik zalditik ezin jaitsita dabil, bidean esperientzia gazi-gozoak izan dituen arren. Uztailaren hasieran bost eguneko zeharkaldia egin zuen bere zaldia den Mayk Stagerekin batera Mallabia eta Urbasa artean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta hasi zinen zaldian ibiltzen?

Bilbotik Elorriora bizitzera joan nintzen 28 urterekin, lana dela-eta, eta kasualitatez hipika bat topatu nuen Iurretan. Zaldian ibiltzeak berehala harrapatu ninduen! Gero, zaldi bat lortu nuen eta, lagun baten bitartez, zaldi-ibilaldiak egiten zituzten gipuzkoarrak ezagutu nituen. Hortik aurrera ez nintzen hipikara bueltatu, naturan ibiltzea izugarria iruditu zitzaidan!

Eta zaldiari esker zaude orain Mallabian...

Bai, zaldia landa batera eramaten nuen, eta bertara joateko nire egungo bikotekidearen baserriaren aurretik igaro behar nuen. Hor ezagutu ginen eta, Elorrión elkarrekin bizi eta gero, Mallabira etorri ginen, bere aitaren jaiotetxera. Hamar urte daramatzagu elkarrekin.

Eta hamar urte hauetan zaldian ibiltzen jarraitu duzu...

Bai, aipatu ditudan gipuzkoar horien artean lagun handiak egin nituen, Dorleta eta Josune aiarrak hain

zuzen ere, eta haiekin hasi nintzen astebeteko zeharkaldiak egiten udaro. Bide ezberdinetatik ibiltzen gara, baina hasten garen lekutik hasita, Urbanasan bukatzen dugu beti. Hango artzain gazte bat ezagutzen dugu, zaldiekin ibiltzen dena, eta harekin batera Urbasatik osteratxoa egiten dugu beti bukaeran.

Hamar urtetan zaldi-bidaia asko egin daitezke...

Beno, tartean etenaldiak ere egon dira: haurdun gelditu ginen, pandemia etorri zen, minbizia izan nuen... 2021ean ekin genion berriro, eta azken bi urteotan Josune eta biok bakarrik ibili gara. Bidaia hauek zoragarriak dira, baina prestaketa lanak ere itzelak dira! Maiatza inguruan hasten gara elkartzen, bazkariak egiten ibilbidea zehazteko... Lehen askoz ere zailagoa zen, mapa handi batzuekin ibili behar ginelako; orain, wikiloc aplikazioarekin, oso erraza da mendian ibiltzea.

Zein izan da aurtengo ibilbidea?

ileapaindegia

Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474
6888 19336

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Olaia Martinez Agirre eta Mayk zaldia Zerainen, 2022an egin zuten ibilaldian.

12 MALLABIAN ZER?

Beranotik irten ginen, Berrizen Tourra ikusi eta Elooriora gero, Araotz, Arantzazu, Altsasu eta Urbasaraino: 120 kilometrotik gora bost etapatan banatuta. Laugarren etapan Josuneren lagun bat batu zitzaigun, beste lagun bat ekarri zuena, eta han abiatu ginen lau neskok zaldi gainean. Hurrengo egunean Urbasara igo behar ginen, eta etapa horretan Dorleta eta lehen aipatu dudana artzaina ere batu zitzaizkigun. Ederto pasatu genuen!

Gauean nola konpontzen zarete?

Bidaia planifikatzerakoan, kontutan izaten dugu zaldiek zenbateko distantzia egingo duten eta landa bat topatzen saiatzen gara, solte deskantsatu ahal izateko eta ez lotuta. Guk ostatueta edo landetxeetan egiten dugu lo eta, bidaia hasi baino astebete lehenago, ostatu horietara eramaten ditugu zaldientzako janaria eta ura biltzeko kuboak.

Animaliak nolabait prestatu behar dituzue?

Bidaia hasi baino lehen parasitoak hiltzen dizkiegu, eta ferratzen ditugu, batzuetan errepidetik joan behar garelako. Gainera, entrenatuta egon behar dira.

Zaldia edo zaldizkoa, nor nekatzen da gehiago?

Gu, seguru! Postura berdinean denbora asko ematen dugu, eta abduktoreak edota belaunak minduta geratu daitezke, baina nahiko arina izaten da.

Badaramazue ekipajerik?

Alportzak daramatzagu, baina oso pisu gutxiarekin: zaldientzako botikiri txiki bat eta ezinbesteko lau gauzatxo.

Nolakoa da zure zaldia?

Mayk Stage deitzen da, 17 urte ditu, eta zaldi arabeara da. Lasaia da, eta hiru urte daramatza nirekin.

Zer sentitzen duzu Mayken gainean joatean?

Oso sentazio berezia. Galopeen irtetzen den momentuan, esaterako, bere indarra eta epeltasuna sentitzea izugarria da. Momentu horretan zaldia eta ni bat gara.

"Bidaia hauek zoragarriak dira, baina prestaketa lanak ere itzelak izaten dira!"



Zelatungo zelaietan, Ernio tontorraren ondoan (2022).

Aske naiz, eta naturarekin konexio oso sakona sentitzen dut. Dena den, zaldia eta zu oso konektatuta egon arren, zaldi bakoitzak bere izaera dauka, eta horrelako bidaietan argi daukagu lau lagun garela: Josune, ni eta gure bi zaldiak, eta lauror artean ondo konpondu behar gara. Eta guztiok disfrutatu behar dugu, ez bakarrik guk: zaldiari ere gozamina eskaintzen saiatzen gara.

Zerbait ikasi duzu zaldiei esker?

Azken urtean ikasi dut aurrean daukadana beste begi batzuekin ikusten, bai zaldiak bai pertsonak ere, eta ulertzen saiatzen naiz, hainbeste epaitu gabe. Horrez gain, naturan ibiltzen ikasi dut, eta konturatu naiz Euskal Herria mikroparadisua dela, bazter itzelak dituela.

Aurrera begira, zaldiarekin ere?

Bai, beti. Hanka bat galduta ere, zaldian jarraituko nuke. Bizitza honetan ez dago ezer nahiaren gainetik.



MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albakamusikaeskola@hotmail.com

| | | |
|---------------|----------------------|--------------|
| - Akordeoia | - Gitarra | - Pianoa |
| - Biolina | - Gitarra elektrikoa | - Saxofoia |
| - Biolontxelo | - Gitarra baxua | - Trikitrixa |
| - Bonbardino | - Lengoia musikala | - Tronboia |
| - Flauta | - Klarineta | - Tronpeta |
| - Kantua | - Panderoa | - Txistua |
| | - Perkusioa | |



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Uztailaren hasieran nesken frontenis maratoia burutu zen

Uztailaren 1ean eta 2an aurtengo nesken frontenis maratoia egin zen Mallabian. Larunbatean bikotekako saioak burutu ziren, eta Itsaso Pradera mallabitarrak eta Laura Saez gazteiztarrak garaipena lortu zuten, Estatuko txapeldunak diren Ana García eta Andrea Campo salamancarrak mendean hartu eta gero (14-9). Igandean, Maialen Bilbao durangarrak Estatuko txapeldunari aurre egin zion, Ana Garcíaari hain zuzen ere. Partidu bikaina izan zen, eta azkenean Garcíaek lortu zuen garaipena. Bestalde, aurreko astean 16 urtetik beherakoen txapelketa burutu zen, eta Gotzon Odiagak irabazi zuen txapela.



Andra Mari jaiak eta San Erroman jaiak burutuko dira abuztuaren



Urtero bezala, Andra Mari jaiak ospatuko dira Mallabian abuztuaren 14tik 16ra bitartean. Horrekin lotuta, Mallabiko Udala hasita dago Andra Mari jaietako jubilatuentzako bazkaria antolatzen. Abuztuaren 16an izango da, San Roke eguna, 14:15ean Kontzejuzarran. Bazkaria doakoa izango da, baina derrigorrezkoa izango da aldez aurretik izena ematea. Interesa dutenek Udaletxera jo beharko dute abuztuaren 4a baino lehen. Bestalde, abuztuaren 31n San Erroman jaiak ospatuko dira Zengotita auzoan, eta jai hauen atzetik etorriko dira ere Beranonagusiko jaiak irailaren 29an (San Migel), Urriko jaiak (urriaren 27tik 29ra), eta Goita auzoko jaiak, azaroaren 25ean (Santa Katalina).

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA



ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

DEUTSCH-ENGLISH-EUSKARA-FRANÇAIS

Ikastero ERDIPRENTZIALAK
hizkuntza gutxietan:
Egun bat eskolan + lan
pertsonala Moodle
plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36 €

Agiri ofiziala
eskura ezazu!

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA



**Matrikula:
Irailaren 1etik 18ra**

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas



Otaola hiribidea 29
eoeibarheo@gmail.com
943 89 92 75

@eoeibarheo



www.eoeibarheo.hezkuntza.net



Jesus Cimarro ermuarra, Estatuko antzerki ekoizle garrantzitsua

Ermuko Antzerki Tailerreko sortzaileetako bat izan zen eta, hamazortzi urte besterik ez zituela, Geroa antzerki taldeko ekoizle eta banatzaile ardura hartu zuen. Berrogei urte pasatu dira ordutik eta gaur egun Pentación Espectáculos enpresaren lehendakaria da, Madrilgo La Latina, Bellas Artes eta Reina Victoria antzokiak kudeatzen dituena. Horrez gain, hamaika urte daramatza Meridako Antzerki Klasikoaren Jaialdiaren buru bezala, eta iaz arte Espainiako Arte Eszenikoaren



Akademiaren lehendakaria izan zen. Madrilgo Ekoizleen eta Antzokien Elkarrearen lehendakaria da, eta baita Antzerki eta Dantza Enpresen Elkargoaren Federazioarena. Hori gutzia dela-eta, *Forbes* aldizkariak munduko 100 pertsonarik kreatiboenen artean

jarri zuen. Halaber, *Expansión* egunkari ekonomikoak egin berri dion elkarriketan, "industria kulturalaren guria" izendatzen dute.

Uholdeen 40 urteurrena etorriko da aurten

1983ko abuztuaren 26an, hilabete ia osoan euria egiteari laga barik egon ostean, errekek kaleak hartu zituen. Haren gaineko denda eta tabernetan egunak lehenagotik entzuten zen ura orroa-ka inoiz ez bezala, eta egun horretako eguerdian Zubiaurre kalean azalera-tzeko modua topa-



tu zuen: etxerik gabe zegoen Kantabria zeharbidea errebentatu eta kale zatia altxatu zuen, minutu gutxitan herria itsaso bihurtuz. San Pelaion ere kale bete ur zetorren. Marea marroi indartsu eta basati hark aurretik eraman zuen bidera atera zitzaion gutzia, bere betiko ubidea bilatu zuen arte. Haren atzetik zenbatu ezineko galerak, lokatza, urteetarako hezetasun usaina... eta gainezka egiten duten urei demaseko errespetoa.



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa



GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



ANTXITXIKETAN AISIALDIA

♦ Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

**PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA**

☎ 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
📞 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📍 Antxitxiketan 📧 Info@antxitxiketan.com



Orain
**KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK** ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Irailaren 16an burutuko da aurtengo Hiru Txikiak proba

Abuztuko oporrak bukatu eta berehala izango dute korrikalariek euren indarrak mendian neurtzeko aukera. Izan ere, irailaren 16an burutuko da Urko, Oiz eta Egoarbitza zeharkatzen dituen Hiru Txikiak lasterketaren bigarren edizioa (iaz baino hilabete lehenago), eta hainbat berritasun izango ditu. Alde batetik, 15 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako martxa eta *trail* lasterketa egingo dira aurrenekoz (12 kilometroko luzera eta 600 metro positiboko desnibela izango dituztenak); bestalde, kontzertu batek emango dio aurtengo ekitaldiari bukaera: Versionarios (19:30ean



plazan). Proba honetan izena emateko epea otsailen hasi zen, eta lasterketa hasi baino lau hilabete lehenago martxarako zein

*trailer*ako dortsalak agortu ziren. Era berean, itxarote-zerrendak ere itxita daude dagoeneko. Izandako arrakastari errepertatuta, antolatzaileak oso pozik daude: "Iazko ekitaldia bikaina izan zen, eta aurtengoa ere bide beretik goaz. Herri osoak babesa eman digu: herritarrek, merkatariek eta ostalariek zein Udalak. Boluntarioen lana ere ezinbestekoa da: iaz lan aparta



egin zuten, eta eta aurtengoa ere 150 lagun baino gehiago batu zaizkigu jada. 2023koa ere sekulakoa izango da!". Hiru Txikiak Bizkaiko Mendi Lasterketen Liga osatzen duten lasterketetako bat izango da aurtengoa.

Udal Liburutegiak II Bookface lehiaketa abiatu du

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek argazki bat ateratu beharko dute liburuen baten azala aurpegiarekin jarrita, argazkiak eta aurpegiak bat egiten dutela irudikatuzko. Irudi hauek biblioteca@udalermua.net helbidera edo 34943179212 telefonora whatsapppekin bidali beharko dira. Argazkiarekin batera, izen-abizenak eta adina zehaztu beharko dira. Informazio gehiago Udalaren webgunean.

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505


ALTAldi
Correduría de Seguros, S.L.
ermua@altaldi.com

INMOBILIARIA J.S.
www.inmojs.com
943 171802
info@inmojs.com

Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02

DG
Horacio Decoración
TAPICERIA · ALIZARIAS · CILAGARRIAK

VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



Errekaldeko igerilekuaren urdintasunaren isla bertako zubian.
Argazkilaria: Estibalitz González.



Argazkiak: Emilio Carral.

UZTAILAREN 24a, ASTELEHENA

19:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, TXUPINAZOA eta ohiko KALEJIRA Irulitxa eta New Tocado musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

22:00-3:00: Martxoaren 8a plazan TEKNO JAIALDIA Alemaniako Eric Sneo eta bertako Alexander Martínez eta Jon Malax Djekin. Antolatzailea: Beti Txarto.

23:00-4:00: DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Vulkano Show orkestrarekin.



ASTARLOAN
**GOXO
GOXO**
Kafé & Deliss
Tel.: 943 17 46 12



hanigan's
Irish Tavern
Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu
Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.
Astegunetan 7:00etan zabalten dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan 10:00etan.
Komentukua z/g · 943030527



Menua, kaxolak, razioak,
pintxoak, ogitartekoak,
hanburgesak...
Plater konbinatuak
8€-tik aurrera!
Tel. 843 630 623
ERMUA

UZTAILAREN 25a, ASTEARTEA

7:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, TXOKOLATE-JANA, Gaztela eta Leongo Kultur Etxeak eskainita.

7:30etan: Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako BARRUS partidak. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.

8:00etan: SOKAMUTURRA Ongarai Eskolako patioan.

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: 2 eta 4 urte bitarteko HAURRENTZAKO MINI PARKEA, Kaltxango plazan

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: HAURRENTZAKO PARKEA San Martin plazan.

12:30etan: Santiago Apostoluaren elizan MEZA NAGUSIA patrioiaren omenez.

12:30etan: HERRI-KIROL ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Probak eta parte-hartzaileak:

HARRI-JASOTZAILEAK: Jon Gisasola eta Karmele Gisasola.

AIZKOLARIAK: Hodei Ezpeleta, Bihurri, Zelai IV eta Álex Txikon.

IPARRALDEKO JOKOAK: Karlos Aretxabaleta.

12:30etan: KALEJIRA Ustekabe txarangaren eskutik.

17:00etan: Aritzmendi pilotalekuan, PROFESIONALEN ARTEKO ESKU-PILOTA PARTIDAK: Caixabank Masters Liga. Ermuko Pilota Taldeak antolatuta.

19:00etan: Mugartea taldearen MARGO KOADROEN ZOZKETA, Zubiaurre kalean.



19:00etan: Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaaren eskutik.

19:00etan: Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, KALEJIRA Ustekabe txarangarekin.

20:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, LARRAINDANTZA nahi duen guztiak parte hartzeko.

20:30ean: Orbe Kardinalaren plazan, EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA, Afaltzaindia taldeak antolatuta.

22:00-3:00: Martxoaren 8a plazan ROCK JAIALDIA Ermuko We Are Apes, Hello! eta Makis 37 taldeekin; Bizkaiko Detroit eta BOTH; eta Galiziako TurboKraks. Antolatzailea: Beti Txarto.



22:30ean: San Pelaioko plazan, "Esencial" ZIRKO KALE IKUSKIZUNA, Vaivén konpainiaren eskutik.

23:00-4:00: Orbe Kardinalaren plazan, Estrella Central orkestrak DANTZALDIA girotuko du.

ONDO PASA JAIETAN!



LONDON
-taberna-

infretabu

Kardenal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com 943174584




AMALUR
FISIOTERAPIA

Ondo pasa Santixauetan!!

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

UZTAILAREN 26a, ASTEAZKENA

7:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, TXOKOLATE-JANA, Gaztela eta Leongo Kultur Etxeak eskainia.

7:30ean: Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan BARRUS partidak.

8:00etan: Ongarai Eskolako patioan, SOKAMUTURRA.

12:00-14:00 eta **17:00-20:00:** 2 eta 4 urte bitarteko HAURENTZAKO MINI PARKEA, Kaltxango plazan.

12:00-14:00 eta **17:00-20:00:** San Martin plazan HAURENTZAKO PARKEA.

12:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, NAGUSIEI OMENALDIA eta Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei SARIAK BANATZEA.

13:00etan: KONTZERTUA Golden Apple Quartet taldearen eskutik Orbe Kardinalaren plazan.

14:00etan: Merkatu Plazan, Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die bazkideak diren aiton-amonei.



18:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, ESKU-PILOTA partidak, Pilota Taldeak antolatuta: lehengo afizionatu kategoriako nesken binakako partida, eta ondoren afizionatu kategoriako mutilen binakako partida.

19:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen "Txaplin" PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko dute.

19:00etan: KALEJIRA Alboka Musika Eskolako txarangak alaituta.

19:00etan: KALEJIRA Ermuko txarangen eskutik.

20:00etan: Orbe Kardinalaren plazan LARRAINDANTZA.

22:30ean: San Pelaio plazan Estranya Cia Teatrek "Calacas" SU KALE IKUSKIZUNA eskainiko du.

23:00- 4:00: Orbe Kardinalaren plazan, Pasarela Orkestrak DANTZALDIA alaituko du.



UZTAILAREN 27a, OSTEGUNA

7:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, TXOKOLATE-JANA, Gaztela eta Leongo Kultur Etxeak eskainita.

7:30ean: Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, BARRUS partidak.

8:00etan: Ongarai Eskolako patioan, SOKAMUTURRA.

11:00-12:30: Arroz-banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, PAELLA LEHIAKETA herrikoari ekingo zaio. Antolatzailea: Lobiano Gastronomi elkarte. Laguntzailea: Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarte.

11:00etan: Martxoaren 8a plazan, SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: 2 eta 4 urte bitarteko HAURRENTZAKO MINI PARKEA, Kaltxango plazan.

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: San Martin plazan, HAURRENTZAKO PARKEA.

12:30ean: KALEJIRA Irulitxa txarangaren eskutik.

13:00etan: KALEJIRA, Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

13:00etan: Orbe kardinalaren plazan, "Arima" FLAMENKO IKUSKIZUNA Berriketan taldearen eskutik.

14:00etan: Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO DIRA eta ondoren ohiko HERRI BAZKARIA.

18:00etan: Orbe Kardinalaren plazan, ERROMERIA, Lotxo taldeak alaituta.

19:00etan: KALEJIRA Irulitxa txarangaren eskutik.

19:00etan: KALEJIRA Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

19:00etan: Orbe Kardinalaren plazan paella lehiaketako epaimahaikideek IRABAZLEAK ezagutaraziko dituzte eta SARI-BANAKETA egingo da.



19:15ean: Orbe Kardinalaren plazan AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA nahi duten guztientzat.

20:00etan: ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.

20:30ean: KALEJIRA Artistas del Gremio bandarekin.

23:30ean: Irulitxa musika-bandaren ONGIETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.

00:00etan: Ongaraiko parkean SUZIRIAK Pirotecnia Zaragozanaren eskutik. Ondoren, KALEJIRA Orbe Kardinalaren plazaraino, eta bertan AGUR JAUNAK abestuko da, aurtengo jaiei agurra emateko.

00:30ean: Orbe Kardinalaren plazan, JAIEN AMAIERA Puro Relajo taldearen kontzertuarekin.





Euskal Birusak eta Antxitxiketanek txikurixa zabaldu dute

Urtero bezala, Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Antxitxiketan Begirale Taldeak Txikurixa zabaldu dute Santixauetan. Euskal giroa sortzea eta autofinantzazioa handitzea dira txikurixaren helburuak.

Zabalik dugu berriro Txikurixa. Aurten elizarako bideko arraindegi ohian izango gara, Felisa Zenarru-zabeitiaren familiak utzitako loka-

lean, Euskal Biruseko bazkide eta urteetan San Martinetan talogile aritutako "Motxu" baserriko alaba. Ekimen honen helburuak dira

Elizarako bideko arraindegi ohian egongo gara!

Eguerditik goizera arte zabalik!

euskararentzako leku atsegin bat sortzea eta elkartearen autofinantziaziorako beharrezkoa den dirua lortzea, eta helburu horiekin bat egiten dutenek hainbat eratan kolaboratu dezakete: zerbitzari bezala txandak eginez, patata-tortilak ekarritz... Interesa dutenek euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi beharko dute. Horrez gain, jakina, kuadrillako errondan Txikurixa ere kontutan hartzea eskertuko dugu!

Leku berean, gainera, ekainean ospatu zen Ermuan Bagara ekimearen kamisetak izango dira salgai, neurri eta kolore ezberdinetan. Zatoz lagunekin Txikurira!

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
 ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
 info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
 1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zaharbidia 4 **ERMUA** (48260) **BIZKAIA**
 www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

MEDITERRÁNEA
 VINTAGE STORE

Arrapa eta osagarriak

Orbe Kardinata plaza 6
 Ermua, Bizkaia

mediterranea_vintage
 mediterranea.vintage

678 359 337

Kopi-Fax

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 **ERMUA** TEL. / FAX 943 17 42 89

TALAPARTA ABERNA

Et a asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**

BASKBILITX, OPILAK ETA PAINAPPLE · Ermuko musika taldeak

"Ermuan musika talde asko daude eta benetako potentziala"

Uztailaren 24an eta 25ean Txosnagunea jarriko da Santa Anako parkean bigarren, eta bertan Baskbilitx, Opilak eta Painapple musika talde ermuarrek joko dute, kanpoko beste musika talde batzuekin batera.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Zer iruditzen zaizue Txosnagunean jotzea?

Baskbilitx: Ilusioa egiten digu, Txosnagunearen bigarren urtea izanik. Iaz jo ez izanak pena ematen digu, baina ez geneukan kontzerturik, aurten hasi gara-eta.

Opilak: Oso ondo iruditzen zaigu Txosnagunean jotzea, kuadrillarentzako jotzea bezala izango delako. Kanpotik jendea etorriko den arren, ia gehienak betikoak izango gara.

Painapple: Eskertzen dugu gurekin kontatu izana, proiektu hasi berria gara eta hainbat aukera izatea oso positiboa da. Aprobetxatu nahi dugu ere eskerrak emateko Txosnaguneari badakigulako zelako lana den hau aurrera ateratzea.

Gustatzen zaizue Ermuko taldeei deia egin izana?

Baskbilitx: Uste dugu logikoa dela herriko taldeekin kontatzea horrelako egitarau batean, are gehiago Txosnagunea hain gaztea izanik.

PAINAPPLE

Baskbilitx

Kanpoko taldeak egotea oso ondo dago egitaraua osatzeko, baina gu talde gaztea gara eta Txosnagunearen babesa sentitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Opilak: Interesgarria iruditzen zaigu, Ermuan musika talde asko daudelako eta benetako potentziala dagoelako. Hori aprobetxatzea eta talde hauei kontzertu bat emateko aukera ematea kristorena da.

Painapple: Ondo ikusten dugu, bai gurekin, baita beste talde batzuekin ere, Ermuko musika kolektiboari ikusgarritasuna ematen zaiolako.

Aurten kontzertu anitzak daude, pixka bat motzagoak direlarik. Horrela izatea nahiago duzue edo gustatuko litzazueke luzeago bat egitea?

Baskbilitx: Egia da zenbat eta talde gehiago egon jende gehiago hurbilduko dela, talde bakoitzak bere



publikoa baitauka eta, zortea izanez gero, zure saioa ikustera ere geratuko dira. Uste dugu laburragoa izatearen arrazoia dela Udalak denbora mugatzen duela, eta moldatu egin behar da, baina guri gustatuko litzazueke herriko kontzertu luzeagoa ematea.

Opilak: Guri ondo datorkigu kontzertua motza izatea, gure lehenengo aldia baita. Nola gauden probatu ahal izango dugu, eta hurrengorako hobetu. Hala ere, gustatuko litzazueke aurrerantzean luzeagoak izango balira, eszenatik itik jaistean oso motibatuta egongo baikara. Luzeagoa izateak ere gauza berriekin esperimintatzeko aukera emango liguke, nahiz eta ez izan profesionalak egiten dugun honetan.

Painapple: Gu ados gaude denbora gutxiago izatearekin, baina gustatuko litzazueke talde gehiago egotea. Egia da toki askotan kontzertuak luzeagoak izaten direla, baina *underground*ean kontzertuak motzagoak izaten dira. Uste dugu jendeak ere eskertzen duela aniztasuna, kontzertu ezberdinez gozatzeko.

Sallabenteko bentia

Sallabenteko Bentiak parian arbola berezixa zekan: adarrekin terraza bat eitxen zeban, egurrezko pasarela batekin etxiakin lotzen zana. Bertan mahaixa eta jarlekuak zeuzaten, meriendak eta afarixak eitzeko. Toribio Etxebarria idazle eibartarrak, Venezuelako erbestian idatzitako *Viaje por el país de los recuerdos* liburuan diño: "Y aún recuerdo el sabor del 'amarretaco' que hicimos en la venta de San Lorenzo, meca de los buenos chorizos, que ha seguido siendo hasta la guerra, antes de ir a comer a casa del tío Cura (Ezeziel Etxebarria osaba abade zeuan Ermuan). No faltaron para mí los fresones, las guindas y las peras de agua, orgullo de las huertas de Zaldúa y de Berriz, que aquel día se mercan en la vecina villa que el día de Santiago festeja a su patrón". 1878kua da bere lehen aitxamen idatzixa. Udalak jarri zeban, ostatu emotiaz gain, ardaun salmentiaz eta onduan zekan bolatokixaz dirua etartzeko. Maria Ormaetxeak eta Felix Ardanzak hartu zebenerako zahartuta zeuan eta barrizatzia tokau jakuen. Sukaldari ona zan Maria: jatorduak emotiaz aparte, apopiluak be hartzen zitxuan. 1935an bota zan, kamiñua zabaltzeko; beste etxe bat altxau zeban famelixiak, gaur egun ezagutzen doguna. Etxe azpizan euki zeban Dioni Ardanzak bere jostundegixa eta 1974-2000 urtien artian Jose Santos suinak burdindendia.



311 -

Casa Vasco, Erma - El Arbol de San Lorenzo

L. Reola, Fot.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOKO

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARBIXA

KARBIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



OLATZ SANTOS

Uda-gau bateko ametsa

“Ordu luzez gidatu eta helmugara ailegatzean, usain berezia zegoen beti airean”

Parkean jarrita nagoela hizketan entzuten ditut ingurukoak. Oporretan doazela, eguzkiaren bila. Oporretan pentsatzeak aita eta ama ekartzen dizkit gogora, autoa beteta egunsentiarekin lehiatuz abiatzen ginen. Amak hondartzako toailarekin estaltzen ninduen hotzik ez edukitzeko. Ordu luzez gidatu eta helmugara ailegatzean, usain berezia zegoen beti airean: errealitate bihurtzearen dauden ametsen usaina.

Nerabezaroan Zarautzko kanpinera joaten ginen lagunekin. Barraskiloen pare etxea soinean generaman 9:00etako tren hartzean. Hondartza eta festa baino paradisu hobeagorik existitu zitekeen imajinatu ezinik. Zarataz eta abenturaz betetako udak etorri ziren gero, Antxixiketaneke kamiseta soinean. Bilerak, lanaldia hasi aurreko gosariak, Lesakako gaubelak. Udalekuak amaitu eta Santixauetako gaupasak hasten ziren orduan. Abuztuan, herrira edo hegazkina hartu eta leku berriak esploratzera.

Iraila beti urrun, klasera edo lanera bueltatzeko azken aurreko gaua heldu arte. Orduan hasten zen argazkietan sekula harrapatu ez genituen momentuen, musuen, abestien eta elkarrizketen nostalgia. Horiek ehuntzen baitute udako oporren magia. Horiek bihurtzen baitute errealitate, betirako oporretan bizi nahi izatearen ametsa. Botila batean sartu eta neguko arratsaldeetan esperantza galtzearen gaudela hartu nahiko genukeen edabe majikoa baita uda.

Orain, etxetik urrun nagoela, Ermuan emandako udako oporrak baino opor ederragorik ez dut imajinatzen. Baina, iluntzen hasi da eta Dublineko hodeiek eurria datorrela oihukatzen didate. Hobe dut parkeko bankua utzi eta oporrekin amesten jarraitzeko leku estaliren bat bilatzea. Gogoratu, gau bateko ametsa baino ez da uda, beraz memorian gorde itzazue argazkietan sekula harrapatuko ez dituzuen une guztiak. Negua heltzean beharko dituzue-eta.

IRUNE MUGERTZA

Pedratxaneko etxean jaioa duela 68 urte, Santukua baserrian hazi zen. Lau neba-arreben artean, bigarrena. Bi alaba eta seme bat dauzka. Afizio ugari ditu eta euskararekin konpromiso sendoa du.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zergogoratzen duzu haurtzaroaz?

Baserria daukat gogoan, eta aste-buruetan gurasoekin Hamberra igotzen ginela. Auzo guztietako erromerietara joaten ginen.

Eta gaztaroaz?

Sagarrak lapurtzera joaten ginen, gurasoei ortuan laguntzera, pinadietan jolastera... Lasai asko ibiltzen ginen, beti zuhaitz puntetan!

Ikasteko aukera izan zenuen?

Ez zitzaidan ikastea gustatzen, eta 13 urterekin okindegi batean lanean hasi nintzen: hamar urte eman nituen bertan. Seme-alabak jaio ziren gero, eta etxean egon nintzen sasoi batean, baina horren ostean hainbat lan izan ditut: bulego batean, jantokiko begirale bezala...

Zer egiten duzu aisialdian?

Asko gustatzen zaizkit eskulanak: puntuarekin soinekoak egin, altzariak edota kamisetak margotu, josi, pultserak eta belarritakoak egin... Eguraldi ona dagoenean, Ondarroa joaten naiz, hondartzara.

Gustuko duzu bidaiatzea?

Bai, alabekin Txilen eta Uruguain egon nintzen aspaldi, motxilarekin. Eta duela urte batzuk Turkiara joan



nintzen ni bakarrik.

Musikazalea zara?

Bai, topera, eta Euskadi Gaztea izugarri gustatzen zait. Dena den, lehen egun guztia ematen nuen kantuan; orain zaletasuna galdu dut.

Telebistan...

Galdera-erantzunen lehiaketak gustatzen zaizkit: *Saber y ganar*, *Atrápame si puedes*, *Pasapalabra*, *La Ruleta*... Asko gustatzen zait *Biba zuek!* saioa ere.

Irakurtzeko ohitura duzu?

Bai, asko gustatzen zait, eta irakurri ditudan azken liburuak dira *La*



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Persianak / Segurtasun persianak / Persiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

| | |
|--|--|
| <p>Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)</p> | <p>Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com</p> |
|--|--|



SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoko garatzen espezializatua dagoen ingeniariatza-entrepresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Sal eta Emakume gaiztoak. Gainera, duela bospasei urte euskarazko irakurketa klubean eman nuen izena, eta erronkatzat hartu nuen, euskaraz alfabetatu gabea naizelako. Nire liburu kuttunen artean, Miren Amurizaren *Basa* nabarmen-duko nuke.

Euskararekin konpromiso sendoa daukazu...

Bai, saiatzen naiz herrian antolatzen diren euskarazko ekimen guztietan parte hartzen. Eta amorru handia ematen dit ikusteak ekimen horietan parte hartzen duten

"Euskaraz alfabetatu gabea naiz, eta irakurketa kluba erronka izan zen niretzat"

"Moderna naizela esaten didate, eta ni pozik"

asko gazteleraz barra-barra dabiltzala gero.

Zer nolako garrantzia dauka euskarak zuretzat?

Berebizikoa, hori da nire borroka. Guk ez badugu zaintzen gure euskara maitea, atzetik datozenek ere ez dute egingo.

Zuk familiarengandik jaso zenuen...

Bai, eta etxean hiru hitz erabiltzen genituen Ermuko euskararen gaur egun galdu daitezkeenak: antxitiketan (korriketan), txixiriketan (saltoka) eta hankurkiloka (arretxikoz).

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak.

Eta zerk barrea eragin?

Ilobek. Dena den, uste dut orokorrean gero eta barre gutxiago egiten dudala, nire burua triste ikusten dut.

Zure bertute eta akats bana?

Min egiten didatenean jenioa ateratzen dut, baina izaera lasaia daukat eta eskuzabala naiz.

Eguneko zure momentua?

Bazkaldu eta gero. Une horretan puntu apur bate egiteak asko erlatzatzen nau.

Jatun ona zara?

Bai, eta denetik jaten dut, apioa izan ezik. Gustukoena, bakailoa,

edozein eratan kozinatuta.

Apaintzea gustatzen zaizu?

Bai, saiatzen naiz arropa eta osagarriak bat etortzen. Modernatzen nauka jendeak, eta ni pozik. Ama bizi zenean berak nahi zuen bezala jantzi behar nintzen, eta hogeita hamar urterekin andra zahar bat ematen nuen.

Ilea ere deigarri beti...

Bai, ilea morea eramaten dut normalean. Ez daukat lotsarik orrazkerarekin, ilea hazi egiten da-eta!

Puntuala zara?

Bai, ahalegintzen naiz.

Ondo konpontzen zara teknologia berriekin?

Benoa... Whatsapp eta Facebook erabiltzen ditut, baina batzuetan laguntza eskatu behar diot alabari mugikorrarekin.

Zein da hartu duzun erabakirik zailena?

Banatzea. Onerako izan arren, oso gogorra izan zen.

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Ez, momentu gogorak egon diren arren, nire bizitza polita izan da.

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Euskal Herria askea dela, independentea.


OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Goienkale 12 *Ilargi-aindegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
zarbitzeko konketa



Caperos

Probaleku z/g
(ERMUA)

Pintxoak
Razioak
Kaxolak

Plater konbinatuak
Ogitartekoak

699 292 043
636 549 154

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

SEHIGA

PROTECCION LABORAL
Y AN BARRERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

1953

E R M U A

Zerkan, plaza osteko kaletxoan, Zezen Egunez lagun taldea. Ezkerretik eskumara: Miguel Mari Areitioaurtena, Jose Ignacio Izagirre, Elias Garitagoitia, Luisita Vallejo, Rafael Unamuno, -----, Angel Ibañez eta guztien aurrean Pedro Mari Arana.



1995

M A L L A B I A



Argazki hau Trabaku Goiko tabernaren aurrean dago aterata, 1995 urtean. Bertan agertzen diren gizonak 1935 urteko kintoak dira, eta han elkartu ziren urteko kinto bazkaria ospatzeko. Argazkian agertzen dira: Esteban Uriarte, Florenzio Alberdi, Jose Astarloa, Jose Ignacio Eizagirre, Jose Asumendi, Bittoriano Zubiate, Martin Gerenabarrena, Jose Antonio Guenaga eta Julian Zelaieta.

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

www.quetzalmoda.com
Zubiñurre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

Instagram icon @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

IRAGARKI LABURRAK

Odontolog@ orokorra behar dugu gure Ermuko Hertz Klinikako lan taldean. Endodontzia eta odontopediatrian esperientzia baloratuko dugu eta esperientzia gabekoak baita ere. Mesedez bidali CV: niklinika@gmail.com helbidera.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. ☎ 685584587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean ☎ 688695331



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Irailaren 22a.**



Uztailaren 30ean
Zorionak **Aimar**, mutil handi!! Bost urte ez dira betetzen egunero!! Disfrutatu topera! Muxu erraldoiak aita, ama eta lagoren partez. Maite zaitugu laztana, muak!



Abuztuaren 23an
Zorionak **Urko!** 10 urte!! Ondo pasatu aitite eta amamaren partez!



Uztailaren 28an
Zorionak **Inhar**, gure futbolaria! Ondo-ondo ospatu zure 6. urtebetetzea eta musu handi bat familia guztiaren partez. Txapeldun!



Uztailaren 26an
Zorionak **Jonathan!** Asko maite zaitugu, muxu handi bat familia guztiaren partez!



Lur (uztailaren 12an) eta **Izar** (abuztuaren 2an)
Gure marimatrakek eguzkixari beste buelta bat!!! Zuek bai bizipoza! Maitxe zaitxuztegu!



Uztailaren 28an
Zorionak **Zuhaitz!!** Topera disfrutatu zure eguna!!! Patxo pila familia guztiaren partez!

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO
OKELAK
ETXEREN EGINDAKO
TXORIZO
TXISTORRA
ODOLOSTE
ETA
KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 66 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINO
nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

UDAKO ZINEA

Abuztuaren 2an:

Top Gun: Maverick.

12 urtetik gorakoentzat.



Abuztuaren 7an:

Minions: El origen de Gru.

Adin guztiarako filma.



Abuztuaren 9an:

Coda: Los sonidos del silencio.

12 urtetik gorakoentzat.



Abuztuaren 16an:

DC Supermaskoten Liga.

Adin guztiarako filma.



Abuztuaren 21ean:

Jurassic World Dominion.

Adin guztiarako filma.



Abuztuaren 23an:

Competencia oficial.

12 urtetik gorakoentzat.



Abuztuaren 28an:

Black is beltza II: Ainhoa.

16 urtetik gorakoentzat.



Abuztuaren 30ean:

El cuarto pasajero

12 urtetik gorakoentzat.



Emanaldi guztiak, Orbe Kar-dinalaren plazan 22:00etan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzarriak

Zeharbatua 8 Td. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4
Ermua

Tel.: 943 030 512
niklinika@gmail.com



irale
Horts Klinika
Clinica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



IRAZ
Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clincasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.



Anari
Uztailaren 23an
20:30ean
Elizako arkupeetan

Antolatzailea

Babeslea



Euskal
Birusa
Elkarteak



XIKURIXA

edarra girua,ba!

Santixauetan
zabalik!
Zatoz zure
potea hartzera!

ARRAZO
EL SAIA
KONDAK